

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GOBERNU IREKIAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua

2025ean partaidetza-prozesuen bitartez egiten diren proiektuak diseinatu, garatu edo ebaluatzeko dirulaguntzak emateko deialdi publikoaren ebazpena

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abenduaren 27an egindako aparteko bilkuran onetsi ziren 2025ean partaidetza-prozesuen bitartez egiten diren proiektuak diseinatu, garatu edo ebaluatzeko dirulaguntzak emateko eta oinarriak.

Laguntza horietara 24.000,00 euroko bideratuko dira.

2025eko urtarrilaren 31n argitaratu ziren oinarriak ALHAOn (12. zenbakia), eta proiektuak aurkezteko epea 2025eko martxoaren 14an amaitzen zela iragarri zen.

Epea amaituta, 13 proiektu aurkeztu dira deialdira.

Deialdiaren oinarrietan eskatutakoaren arabera aurkeztutako dokumentazioa balioetsi ondoren, organo balioespen-batzordeak eman beharreko dirulaguntza kalkulatu du, kontuan hartuta horretarako dagoen aurrekontua eta deialdiaren berariazko oinarrietako 7. puntuan jasotako balioespen-irizpideak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da hiru mila eta bostehun euro (3.500,00 euro) baino handiagoa izango proiektu bakoitzeko, hala jasotzen baita oinarrien 9. puntuan.

2025eko ekainaren 26ko txosten teknikoan egoki iritzitako gogoetak egin dira eta arrazoitu egin dira lortutako puntuazioari eta eskatutako zenbatekoari jarraituz elkarteei laguntzak emateko proposamena, gutxieneko puntuazioa lortuta dirulaguntzarik lortu ez duten entitateen proposamena eta eskatutako puntuazioa gainditzen ez duten eskabideak ezesteko proposamena.

Kontuan hartu dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 8. artikulua eta deialdiaren oinarrietako 10. Puntua: eta horien arabera, Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen Saileko zinegotzi ordezkariak proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehenengoa. Aurkeztutako 13 eskabideetatik 12 onartzea, balioespen-batzordearen txostenean emandako irizpideetan oinarrituta. Kanpoan uztea Antonio López de Guereñu-José Mardones HLHri dagokiona, oinarrien 3. eta 6. puntuetan ezarritakoa urratzen duelako.

Bigarrena. Erabaki-proposamen honen eranskinean zehaztutako elkarte eta kolektiboek laguntzak ematea eta ordaintzea, lortutako puntuazioaren arabera eta helburu horretara bideratutako aurrekontuaren gehieneko mugaraino, hau da, 24.000,00 euro guztira. Era berean, dirulaguntza ezestea gutxieneko puntuazioa lortu ez duten elkarteei eta, lortu arren, horretarako aurrekontua agortu delako dirulaguntzarik lortu ez dutenei.

Hirugarrena. Gastua indarrean dagoen aurrekontuan horretarako jarritako 1822.9242.48014 partidaren kontura egingo da.

Laugarrena. Elkarre interesdunei erabaki honen berri ematea, eta orobat jakinaraztea erabakiaren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daitekeela Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, aldeztu aurretik, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke, aurkaratzen den egintza eman zuen organo beraren aurrean, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Kasu horretan, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi-errekurtsio berraztertze errekurtsioa espresuki edo ustez ebatzi arte.

Ondoren, ebazpena espresua bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunetik aurrera; espresua ez bada, edozein unetan aurkeztu ahalko da errekurtsioa, dagokion arauarekin bat administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik hasita.

Bosgarrena. Deialdi honen barruan emandako dirulaguntzak ALHAOn, udalaren iragarki taulan, webgunean eta dirulaguntzen datu-base nazionalen argitaratzeko agintzea, onuraduna, emandako zenbatekoa eta lege eskatutako gainerako informazioa zehaztuta.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 21ean

Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
JAVIER LÓPEZ MONTAÑA

ERANSKINA / ANEXO

ESKATZAILEA SOLICITANTE	IFZ - NAN NIF-DNI	PUNTUAZIO OSOA PUNTUACIÓN TOTAL	EMANDAKO DIRUA CANTIDAD ASIGNADA
Hally Pular	G01513308	83	3.500 €
Colectivo Batuta Miren Peña Sáiz	72840460N	78	3.150 €
Fund. Ehunbide	G19854595	78	3.125 €
A.V Guztain Goikolarra	G01575158	76	3.150 €
Euskharan Kultur Elkartea	G01268374	74	3.150 €
Asoc. Musicoterapia	G01172725	69	2.400 €
Colectivo Lectune Begoña Arnillas Bravo	44678277H	68	2.702 €
Bionekazaritza	G01157569	66	2.823 €
Cruz Roja	Q2866001G	64	0 €
Médicos del Mundo	G79408852	63	0 €
Ampa Auzo-Ametsa	G01477272	62	0 €
A.V. Ibailakua	G01550821	62	0 €
			24.000 €